

Frans Pourbus Gazteak egindako
Maria Medicikoaren erretratua
edo Habsburgotarren tentazioa Frantziako gortean



Blaise Ducos

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berriazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

- © Bibliothèque nationale de France: 6. eta 7. ir.
- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1., 3. eta 4. ir.
- © Kunsthistorisches Museum mit MVK und ÖTM: 2. ir.
- © Museo Nacional del Prado: 8. ir.
- © RMN / Thierry Le Mage: 5. ir.
- © RMN / Hervé Lewandowski: 12. eta 13. ir.
- © Sistema Museale Civico della città di Vicenza: 10. ir.
- © 2010. Photo Scala, Florence - courtesy of the Ministero Beni e Att. Culturali: 9. ir.

Argitalpena:

B'09 : *Buletina* = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 5. zenb., 2010, 109.-137. or.

Italian margotutako erretratu flandestarra

Bilboko Arte Eder Museoak ikusgai duen *Maria Medicikoaren erretratuak* [1. ir.] nahasmen handia sortu omen du gaurdaino¹. Ez gara hitz egiten ari lanak Gheeraerts izenarekin antzina izandako loturaz (Gheeraerts izenarekin pasa zen artearen merkatura 1950eko hamarkadaren erdialdean), garrantzi handiagoko arazo batez baizik²: noiz sortu ote zen. Tradizioaren arabera, bere egilearen garaian, hau da, Frans Pourbus Gaztearen (1569-1622) garaian kokatzen bada ere (jatorri flandestarra zuen erretratugilea, ibilbide europarraren ondoriozko naturalizazio frantsesa lortuko zuena), mihisea artistaren urte italiarrekin lotu behar da (1600-1609). Artikulu honek nahi duena da (guk dakigula, estreinakoz), Bilbon ikusgai dagoen lan hau Pourbus Gaztearen ibilbidearen (aurretiazko) garai horretan datatzea, eta, hala, datatze horren kariaz, koadroa egileari Frantziako gortearen ateak zabaldu zizkion maisulantzat hartzea. Frantziako Medicikoaren bigarren erreginaren erretratu hau ez da, bada, beste errege erretratu bat. Gakoa, formula da, autoreari esparru habsburgotarretik irtetea eta Borboitarren eremuan sartzeari ahalbidetu ziona, plastikotasun bereziko ibilbide bati jarraituz. Pourbus Frantziako oroimenean erregistraturik gelditu da XVII. mendeko lehenengo urteetako errege familiaren pintore gisa, batez ere, italiar kutsu handia eta espiritu habsburgotarra duen lan honegatik... Eta horixe bera da jarraian azaldu gura duguna.

1 Gustave Rothan Bilduma zaharrekoa da. 1890eko maiatzaren 29tik 31ra Georges Petit galerian egindako enkantean, 88. zenbakia izan zuen (Lugt 49176). Bertan, Donaldsonen erosi zuen 17.200 liberatan, Hagako RKDn kontserbatzen den ale batean agertu bezala. Ondoren, Roxburgheko dukearen bildumaren parte izatera pasa zen, eta 1956ko ekainaren 1ean, M. Gheeraertsen lan gisa atera zen enkantean Christie'sen (32. erloa), eta Halsboroughek erosi zuen. Bilboko Arte Eder Museoako kontserbatzailea den Ana Sánchez-Lassaren ahoko komunikazioaren arabera, 1970eko hamarkadan, koadroa Madrilgo arte merkatuan zegoen (Madrilgo Santa Ana plazako Antigüedades Eutiquiano dendan), eta, bertan, Lorenzo Hurtado de Saracho jaunak eskuratu zuen. 1976an, gizon hark gordailuan utzi zuen museoan, eta, azkenik, 1984an eman zuen oinordetzan. Nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Ana Sánchez-Lassari, artikulu hau idazten uzteagatik. Gure solasaldia, *in situ*, Pourbusen koadroaren aurrean, une gogoangarria izan da.

2 Arestian esan denez, Christie's enkante-etxeko 1956ko enkantean, Halsboroughek erosi zuen. Ondorioz, Federico Zerik koadroaren erreproduzioaren atzeko aldean egindako iruzkina uler daiteke. «Halsborough?» (Fondazione Federico Zeri fundazioaren dokumentazioa, Villa la Mentana, Boloniako Unibertsitatea).



1. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Maria Medicikoaren erretratua, 1606-1607
Olioa mihisean. 214,7 x 124,5 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 84/86

Pourbusek Italian egindako urteak, batez ere, ibiltariak izan ziren. Flandestarrak (bere patroï Gonzagatarren kontura) bidaiatu behar izan zuen penintsula zisalpinotik Napolira edo Erromara, baina baita Inperioko lurretatik, Austriako Tiroletik eta, azkenik, Frantziako erreinutik ere. Azken bidaia horretan, 1606an, Mantuako gorteko erretratugile ofizialak Frantziako erregina Maria Medicikoaren irudi ospetsu eta bikaina gauzatu zuen. Horren berri XIX. mendearen bukaeran argitaratutako gutunen bitartez baino ez dugu izan. Hala ere, ezin izan da koadroaren aztarnarik aurkitu.

B.G.k Mantuatik alde egin ondoren, Serenisimo nire jaunaren zerbitzura izan ditudan egiteko anitzek, eta, oraindik dauzkadanek, ez didate utzi B.G.k gura duen zerbitzua betetzeko denbora nahikorik [...]. Beraz, Erreginaren jatorrizko erretratu, aipatutako eragozpenak direla-eta, bukatu gabe gelditu da. Izan ere, bukatu den gauza bakarra bisaia izan da, baina edergarri guztiak falta dira, hau da, lepoa eta jantzia; horrenbestez, kopia bat egiteko beharrezkoa litzateke jatorrizkoa bukatu egotea, eta, gaurdaino, ez da kopiarik egin. Nik nire andre Madama Serenisimarentzako kopia bat egin behar dut, eta nik neuk ez beste inork egin behar du, ez baitu nahi gazte ikastunak horretan has daitezen erretratu burutu barik egonda. Hala ere, 20 egun iragan behar dira kopia hori bukatu egiteko, oraindik hasteke baitago; ondoren, bada, kopiak egin ahal izango ziren, baina B.G.k nahiko balu gaur egun jatorrizkoak duen egoeraren kopia bat, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko lidake, izan ere, ni ez naiz nire buruaren jabe, Serenisimo Duke jaunaren menpe bainago, eta ezin dezaket berau egin, aske izango banintz egingo nukeen azkartasun berarekin [...] oraindik B.G.S.ren agindutara egonik, berak jakinaren gainean egon beharko luke, eta nik, berriz, nire eskuetatik igarotzen diren lan guztien berri eman beharko nioke, B.G. Serenisek agindu bezala. Nik, nire aldetik, B.G. zerbitzatzin jarraituko dut, izan ditzakedan ardura eta azkartasun handienekin, eta, buruenik, adeitasun osoz, B.G. aurrean xumeki makurtu eta bere eskua musukatzen dut. B.G. humildis eta devotissima. zerbitzaria, Francesco Purbis³.

1607ko urtarrileko gutun honek Frantziako erreginaren irudiaren betearazpenean egondako atzerapena justifikatzea zuen helburu, eta agerian jartzen du Pourbusek Maria Medicikoarena margotu behar izan zuela, baita jatorrizko lan hartatik erreplikak egitea ere. Gogorarazi dezagun erregina Mantuako dukesaren ahizpa zela, eta, ondorioz, Vincenzo dukearen koinata eta Gonzagako printze eta printzesen izekoa. Ez da zaila irudikatzea Padaniako hiriko gortearen eskaria, horren ahaide hur eta leinargiaren irudiaren hainbat ale eskuratzeko. Halarik ere, gaurdaino, eta beharrezkoa dugu azpimarratzea, ez dago gure garaira iritsi litekeen lanik horrelako eskari baten testuarekin lotzerik.

Beraz, beharrezkoa da berriro ere kronologiari heltzea, labur-labur. Pourbus Mantuako dukesa zen Eleonora Medicoarekin bildu zen, azken hori Frantziara joan baitzen Luis XIII.a delfinaren bataioa zela-eta, 1606. urtean. Jakin badakigu pintorea Villers-Cotterêtsetik igaro zela. 1606ko abuztuaren 20an, Maria Medicikoaren erretratu hasi zuen⁴. Mantuara itzultzean, erreginaren erretratu bati ekiteko eskaria jaso zuen, hain justu, 1607ko urtarrilaren 15ean Frantzian egiten hasi zenarena. Ikusi dugunez, Fernando Gonzaga printzearen au-

3 «Le molte occupationi che di continuo ho havuto dopo che V. E. si è partita di Mantova, et quelle che tuttavia tengo, per servizio del Serenissimo mio signore non m'hanno permesso fino a quest'hora tempo in comodità di poter attendere al servizio desiderato da V. E. [...] Oltre che il retratto originale della Regina per detti impedimenti è rimasto imperfetto non essendovi finito altro che solo la faccia mancandovi tutti li adornamenti cioè il colaro et l'habito, si che per estraere bene una copia, bisognerebbe che l'originale fosse del tutto fornito, et sin ora non si è ancora cavato alcuna copia, io ne ho da far una per Madama Serenissima mia Signora la quale bisogna che io finisca tutta di mia mano non potendo; giovani lavorarvi attorno senza havere un retratto finito inanzi, sarà bene 20 giorni avanti che detta copia si fornita, perchè è ancora da cominciare, et allora se potranno cavar le copie, però se V. E. se contentasse d'una copia in la maniera che esta di presente originale, avisandomi se potria fare assai più presto, et perciò che io non sono patrone di me stesso essendo obligato al Serenissimo Signor Duca, non posso eseguire con quella prontezza quel tanto che io faria se fosse in libertà [...] essendomi anco comandato di S. A. S. il quale ni ogni modo bisogna che lo sappia, essendo io obligato di darli conto di tutte le opere, che mi passano per le mani et havendo questo ordine di S. A. Sereniss. Non mancaro del canto mio di servire V. E. con ogni diligenza e prontezza a me possibile et qui per fine con ogni debita reverenza humilmente a V. E. m'inchino e bacio le mani. Di V. E. Humiliss. et devottiss. servitore, Francesco Purbis». Frans Pourbus Gazteak Mantuako Fernando Gonzagari 1607ko urtarrilaren 15ean idatzitako gutuna. Bertan, artista Frantzian egindako egonaldiaren ostean margotutako Maria Medicikoaren erretratuari buruz hitz egiten da, bai eta bere erreplikei buruz ere. Bachetek argitaratua, 1868. 439.-440. or.

4 Ibid., 298.-299. or.



2. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Eleonora Austriakoa artxidukesaren erretratua
 1603-1604
 Olioa mihisean. 111,5 x 92 cm
 Ambras gaztelua, Innsbruck.
 Kunsthistorisches Museumena gordailua, Viena
 Inb. zenb. GG 3070

rean bere burua zuritu zuen, hark egindako eskaria betearazteko behar izandako denboragatik. Pourbusek 1606. urtean Parisetik alde egin zuenez, uste da koadroa ez zuela Mantuara itzuli arte bukatu. Geroago, koadroa Frantziara bidali zen. Ezagutzen diren gertaerak aintzat hartuz, 1606.-1607. urteen arteko neguan margotutako koadro bat bilatu gura da, hain zuzen ere, Frantziako erreginarene irudia duena. Koadro horrek erreginarene irudi gazteagoa islatzen du, Pourbusek Parisen 1610eko hamarkadan gauzatutako bere beste irudi (hauek ezagunak) batzuekin alderatuz.

Bilboko Arte Eder Museoko koadroan, Maria Medicikoa ezin hobeki antzeman daiteke. Ohi baino gazteago ikus dezakegu, batez ere, Pourbusek, Saint-Germaingo *faubourgean* kokatuta, margotu zituen erretratuen aldean. Lehenengo datua da hori. Bereziki, konposizioa, benetako silueta nabarmentzen duen drapeatu aparta gauzatzeko moduak –lana benetako testuinguru batean zuzen-zuzenean kokatzen duen pintura zatia– eta eskuak agerian uzten dituen jarrerak, ezinbestean iradokitzen dute Ambrasko gazteluko erretratu-bilduma. Izan ere, bilduma horrek Austriako etxearen artxidukesa gazteak erakusten ditu, eta pieza horiek Frans Pourbus Gaztearen pintzelak margotuta daude, 1603-1604. urteen artean⁵. *Eleonora Austriakoa artxidukesaren erretratua* izeneko lanak [2. ir.], bereziki, hainbat antzekotasun ditu gure koadroarekin (eskuak, drapeatuen egitura, posea, ikuspuntu kontrapikatua, haragi-kolorea). Bilboko mihisearen ohiz kanpoko neurriek (erregina tamaina naturalean dago) erretratu austriarrek (erdibideko tamaina dute) izan ohi ez duten zabaltasuna eta handitasuna lortzea ahalbidetzen diote pintoreari. Konparazio hori –gure ustez, inoiz iradoki ez dena– Pourbusek 1606-1607. urteen artean margotutako Maria Medicikoaren koadroa identifikatzeko bigarren datua da.

5 Ikus Heinz/Schütz 1976, 100., 105. eta 106. kat.



3. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Maria Medicikoaren erretratua, 1606-1607
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Xehetasuna



4. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Maria Medicikoaren erretratua, 1606-1607
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Xehetasuna

Mihise honen kalitatea azpimarratzekoa da, egoera oso onean kontserbatzen baita. Ez da pintore berri baten lana (Pourbusek, artean, 37 urte zituen), gorteko erretratuen maisulan bat baizik. Izan ere, lanean baliabide gutxi erabili direla ematen badu ere, aberatsa da detaileetan, eta ikusizko manipulazioaren benetako zientzia agertzen du. Diamanteak adatsean —«Beau Sancy» ikus daiteke, koroaren bitxien pieza bereizgarria [3. ir.]—; Medici hau zoratzen zuten «madari perlak», emakume gaztea edertuz (eskumuturrekoak, lepoko luzeak, paparreko orratzak); Pourbusek euren distira isila itzultzen dien «mahai itxurako» diamante zizelkatuak (orratzak, eraztunak), hain ezberdinak brillanteek jaurtikitzen dituzten erlantzetatik, harribitxiak zizelkatzearen arteak XIX. mendean sartutako berrikuntzen ondorioz; eta, azkenik, parpailak [4. ir.]; horrek guztiorrek ohiz kanpoko pertsonaia dela adierazten digu. Handikeriara jo barik, Pourbusek errege-presentzia iradokitzen du. Materia piktorikoaren edertasunak zerikusi handia du horrekin, bai eta erretratu osoak erakusten duen beltzaren eta gorriaren arteko aldea ere (ehun beltzak uzten dituen zuriuneen artean eskarlata koloreko oihalaren jokoarekin)⁶, baina beharrezkoa da azpimarratzea, halaber, ikuspuntuak duen zeresana. Hala ere, pertsonaia pikatuan ikusten da, gailendu egiten da eta modu naturalean altxatzen dela dirudi, lana ikusten duen pertsonaren aldean. Kontrako bi ikuspuntu hauek batera existitzen dira lanean, eta harritzen duen dardara sorrarazten dute. Begiz jotzen da konposizioa ikuspuntuari esker, besaulki eta mahaiaren gainean kokatzen baitu, baina erreginari so egitera behartuta gaude, margoturik dagoen kontrapikatua dela-eta... Espazioaren zientzia lan guztian antzematen da: badirudi airea Maria Medicikoaren inguruan biraka dagoela, eta bertan ikus dezakegu Pourbusek pertsonaia asko dituen konposizio erlijiosoen pintore handi gisa egin dezakeena [5. ir.].

Azkenik, Pourbusek edertasun berezi batean jartzen du arreta Maria Medicikoa pintatzen duenean. Adats kizkurtua, bisaiaren obaltoa, hur koloreko begiak, kopeta handi eta zabala, haragi-kolore berezia... Denak bat egiten du erreginari noblezia kutsua emateko, sustraiak Brujas eta Anberesen dituen pintore baten

⁶ Kolore beltzak ez du dolua adierazten hemen. Gorriarekin konbinaturik dagoenez gero, ulertezina izango litzateke hileta-esangura esleitu izana. Ezin da koloreetan oinarritu, Frantziako Enrike IV.aren hilketaren ondorengo sormen-lan bat babesteko.



5. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Azken afaria, 1618
Olioa mihisean. 287 x 370 cm
Musée du Louvre, Paris
Inb. zenb. 1704

komitenteek itxaron zezaketen ogibide flandestarrarekin bat etorriz. Handitasun handiz egindako erretratuaren irudi habsburgotar tradizionala pose harroan eta osagarrietan ikus daiteke, apaindura gutxikoak baina aberatsak aldi berean: besaulkiak, tatxetekin apainduta eta tapizatua, belus gorrikoa dela ematen du; marmolezko pilastrek eta zoruak jauregiko inguru batean dagoela adierazten digute.

Edertasun hau ezin daiteke banandu eszenatik; bereziki, ikusgarria da drapeatu gorri handiaren kasua, Erdi Arotik Frantziako subiranoak jendaurrean agertzen ziren palioak gogorarazten dituen [6. eta 7. ir.], eta, halaber, gogora ekartzen ditu habsburgotarren dinastiaren erretratu handiak [8. ir.]. Ikusizko kulturari dagokionez, esan daiteke, batez ere, espainiarra dela, baina zuzentzen zitzaion inguru frantsesa kontuan hartzen jakin izan du.

Funtsean, estiloaren argudioak ahalbidetu egiten du iturriek sortutako hutsunea betetzea. Bilbon kontserbatzen den mihiseak Frans Pourbus Gazteak, 1606. urtean Frantziatik igaro ondoren, margotutako Maria Medicikoaren erretratu gisa ikusteko baldintzak betetzen ditu.

Esan dezagun, buruenik, Florentziako Pittiko jauregian koadroaren aldaera bat dagoela [9. ir.], murriztuagoa (bustoa), eta zenbait alde aurkezten ditu erreginaren apaingarrietan zein arropan —mihise hau Scipione Pulzone⁷ margolariarena zela pentsatzen zen—, baina aurpegia Bilboko koadroan dagoena da. Era berean, Mrs. Phoebe Apperson Hearstek (1842-1919), filantropo estatubatuarra, hala-moduzko kopia izan behar zuena izan zuen bere bilduman (San Frantziskon aurkeztu zuen, 1917an), aldaera simpleagoekin, Bilbokoarekin alderatuz gero⁸.

7 Ikus Venturi 1934, IX. libk. VII. atala, 778. or.

8 New Yorkeko Frick Art Reference Libraryren erreproduzioaren arabera. Ikus Laurvik 1917.



6. Jean Bourdichon (c. 1457-1521)
Jean Marotek bere liburua eskaintzen dio Frantziako erregina Ana Britainiakoari
Jean Maroten *Le Voyage de Gênes-Tours* laneko 1. folioa, 1508
Bibliothèque nationale de France, Paris
Inb. zenb. Fr. 5091



7. Jean Bourdichon (c. 1457-1521)
Luis XII.a Genoan sartzen
Jean Maroten *Le Voyage de Gênes-Tours* laneko 22v. folioa, 1508
Bibliothèque nationale de France, Paris
Inb. zenb. Fr. 5091



8. Alonso Sánchez Coello (1531/1532-1588)
Isabel Klara Eugenia infanta eta Magdalena Ruiz, c. 1586
 Olioa mihisean. 207 cm x 129 cm
 Museo Nacional del Prado, Madril
 Inb. zenb. P00861



9. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Maria Medicoaren erretratua, 1606-1607
 Olioa mihisean. 83 x 62,7 cm
 Palazzo Pitti, Florentzia
 Inb. zenb. 1912

Bilboko museoan ikusgai dagoen koadroaren antzinako jatorriari buruzko zenbait galdera egitea, antza, oso delikatu da. Izan ere, ez dago jakiterik non zegoen *Maria Medicoaren erretratua* XIX. mendearen amaieran. Mihisea, *Frantziako Isabelen erretratua* lan ederrarekin batera, Gustave Rothan (1822-1890) ministro ahalguztidunaren bilduma paristarrekoa zen⁹. Lanak, H. Vionen (1883-1890) grabatuan egindako oharrean agerian uzten denez, bazeukan jaberik: «F. Pourbus pinx. H. Vion sc.»; era berean, Rothan zendu ondoren, parte hartu zuen enkanteko katalogoaren fitxan ere jasota dago, koadroa «Porbus (Frans), Gazteari» esleituz. Halaber, enkante hura egin zenean sakabanatu ziren objektuen artean aipatzekoa da Frantziako erreginaren busto baten erretratua, gaur egun desagerturik dagoena¹⁰. Gustave Rothanen nortasunak, alsaziar jatorriko abertzale sutsua eta Bigarren Inperioan diplomatiko garrantzitsua, azaldu egin dezake Frantziako errege-familiako pertsonaiak begiko izateko arrazoa¹¹

Interesgarria den beste alderdi bat da Bilboko koadroa Margarita Gonzaga islatzen duen erretratu ezezagun baten konposizioarekin konparagarria dela [10. ir.]¹². Gonzagako printzesa Bar eta Lorenako dukearekin

9 *Frantziako Isabelen erretratua* Rothanen heriotzaren ondoren egindako enkanteko 91. erloaren parte da (Lugt 49176. zenb.), eta, bertan, Austriako Ana andre erreginaren erretratu gisa azaldurik zetorren. Berez, Luis XIII.aren arrebaren erretratua da, hau da, Frantziako Isabelena, Espainiako erregina izango zenarena. Ohikoak dira Austriako Anaren eta bere koinata zen Frantziako Isabelen arteko nahasteak (honi dagokionez, ikus Ost 2000). Hans Ostek azpimarratzen ez duen funtsezko arrazoa honako hau da: Pourbusen ekoizpena zuzentzen duen Maria Medicoa Espainiako infantaren irudia gutxiesten saiatzen da, Luis XIII.aren emazte gaztea eta zuzeneko etsaitzat zuena Frantziako gortean, gorteari ematen zuen irudiari dagokionez. Bestetik, bere alaba Isabelen irudia hedatzeari ekin zion, 1615eko «ezkontza espainiarrak» prestatze aldera.

10 89. erloa (olio-pintura mihise gainean, 62 x 49 cm). Lana ez dator katalogoan. Berau identifikatzeak arazoak sortzen jarraitzen du.

11 Ikus «Rothan, Gustave» sarrera, in Sitzmann, 1909-1910.

12 Ikus Ballarin 1982, 52. or.



10. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Margarita Gonzagaren erretratua, 1606-1607
 Olioa mihisean. 124,5 x 100 cm
 Pinacoteca Civica, Vicenza, Italia
 Inb. zenb. A 81



11. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Maria Medicikoaren erretratua, 1606-1607
 Olioa kobrean. 5,4 x 4,2 cm
 Bilduma partikularra, Estatu Batuak

ezkondu zen 1606an, eta Pourbusek erretratua egin zion urte berean. Azken koadro horrek belaunetaraino soilik erakusten du Gonzaga printzesa, baina gure mihisearekin dituen antzekotasunak begi-bistakoak dira: pose berdina, hondoa erabat okupatzen duten gorrimin koloreko oihal zintzilikari astunak, eta haragi-kolore berberak. Frans Pourbus Gaztea Frantzia lehenbizikoz egondako garaian, funtsezkoak diren lanak utzi zizkigun (1606.-1607. urte ingurukoak), gaur egunera arte gaizki kokaturik egon direnak. Izan ere, ez dira euren sor-kuntza testuinguruan, hots, artistak izandako ibilbide italiar luze eta aberatsean kokatu. Horretaz gain, Euro-patik beste hainbat bidaia egin zituen, erabakigarriak izan zirenak.

Bukatzeke, gogora ekarri dezagun Maria Medicikoaren miniatura zoragarri bat, gaur egun esku pribatuetan dagoena eta lotura estua daukana Bilboko koadroarekin [11. ir.]¹³. 1983an Worcesterren (Massachusetts) egindako erakusketa bateko katalogoan, erretratu txiki hau zetorren. James Weluk ere lan bien arteko hur-biltasuna nabarmendu zuen, Pourbus Gaztea Frantzia egondako lehen egonaldiaren testuinguruarekin erla-zionatu gabe. Bilbon ikusgai dugun koadroa errepliken eta erreproduzio autografoen (miniaturak barne) sorburu zela pentsatzea bat dator ez bakarrik Pourbus Gaztearen ibilbide artistikoaz dakigunarekin, baita mila eta seiehuneko lehen urteetan gorteetan egiten ziren erretratuen eskakizunekin ere.

13 Enkantea Christie'sen, New Yorken, 2009ko urtarrilaren 27an, 38. erloa: «The Scholar's Eye: Property from the Julius Held Collection» (I).

Prestigio italiarra eta tentazio habsburgotarra

Gure iritziz, eta *a priori* pentsa genezakeenaren aurka, Frans Pourbus Gaztearen *Maria Medicikoaren erretratu* ezin daiteke azaldu italianismo adoretu batekin, ustez 1600eko hamarkadan gailentzen zena. Ezbairik gabe, Frantziako erresumak aldameneko herrialdeekin zituen loturak sendoak eta zaharrak ziren, gutxienez, Italiako gerretatik eta Frantziako monarken amets espansionistetatik. Loturak are nabarmenagoak izan ziren XVI. mendearen bukaeran: 1579an, Henri Estiennek *Deux dialogues du nouveau langage français. Italianisé et autrement desguizé, principalement entre les courtisans de ce temps...* (*Hizkuntza frantses berriaren solasaldi bi, bestelako eraz italianizaturik eta jantzirik, batez ere, garaiko gortesauen artean...*) argitaratu zuen, 1580an Valiostarren gortean modan zegoen italiar pedantekeriaren satira; Montaigne, suminduta, kexu egiten da Erroman frantses gehiago ez daudelako; 1589an, Erroman ere bai, Joyeuse kardinalak San Luis Frantsesen elizako arkitektura berritzea sustatu zuen; *L'Astrée* de Honoré d'Urfé, 1607an hasitako lana da eta italiar estiloak berrerabili zituen... Finean, Frantziako eliteek Italia ezagutzen zuten, eta berataz trufatu edo maitemindu egiten ziren. Italiak, arteen sorterriak, nekez gainbaloratu daitekeen lilura eragiten du Frantziarengan¹⁴.

Eragin italiarrak XVII. mende hasierako mundu auliko frantsesaren gainean izandako eragin honen garrantzia gogora ekartzea ez da alferrikako kontua (eragina are handiagoa izan zen printzesa italiar bat, Maria Medicikoa, Frantzian tronuratu zutenean). Gomendagarria da, hala ere, atzera begiratzea eta beste potentzia bat, edo, gurago bada, beste eragin bat begiz jotzea. Habsburgoko potentziaz ari gara. Lehenik eta behin, gogora dezagun, labor-labor, Frantzia eragin espainiarraren eta eragin italiarraren artean zegoela. Ikusi dugunez, azken horrek Frantziako ekoizpen intelektual eta artistikoetan, gustu eta modetan eragin sakona zuen. Espainiaren eragina, berriz, anibalentea da oso 1560az geroztik, erlijio-gudak zirela-eta, mehatxutzailea suertatzen zen Frantziak aktibo zegoen alderdi espainiar katolikoa eratu ondoren, bai eta Espainiako koroak Frantziarekiko zituen asmoak zirela-eta ere. Hala, bada, ezusteko bultzada izan zuen 1610ean Frantziako Enrike IV.aren heriotzaren ostean, eta, hori guztiori, Maria Medicikoari esker, bere alarguna. Jakin badakigu ama erregina izan zela Espainiara hurbiltzeko saio politiko eta diplomatikoa egin zuena, eta horren adibide garbiak ditugu 1615eko «ezkontza espainiarrak». Hain zuzen ere, Frantziako Luis XIII.a Austriako Ana infantarekin ezkondu zen, eta Asturiasko printzea, Felipe IV.a, Borboiko Isabelekin ezkondu zen. 1606an, Fontainebleau antolatutako ospakizunak egin ziren delfinaren bataioaren kariaz, eta, urte horretan bertan, Pourbusek Frantziara bidaiatu zuen Mantuako dukesa Eleonora Medicikoaren segizioan. Enrike IV.ak bizirik dirau eta egoera oso bestelako zen: erregeak Espainiako eraginaren kontra tinko borrokatu zuen. 1600eko hamarkadan, Frantziaren «hisponofobiaz» ere hitz egitera heldu zen¹⁵. Azken jarrera hori, argitu dezagun, politikoa zen batik bat: Frantziako etxeak sendo agertu nahi zuen bere etsai iberiko beldurgarriaren aurrean; Espainiako kulturaren eraginak, hala ere, nahiko handia izaten jarraitzen zuen, eta zenbaezinak dira frantsesera itzuli ziren literatur espainiarraren maisulanak, urte gutxi batzuetan. César Oudinek, erregeen interpreteak, zeresan handia piztu zuen 1607an, *Tesoro de las dos lenguas española y francesa* argitaratu zuenean, bi herrien artean hurbilketa linguistikoa, eta, beraz, kulturala, lortu gura zuena¹⁶. Maria Medicikoak Frans Pourbus Gaztearentzat posatu zuenean, Espainiak Frantzian zuen eragina susmagarria eta,aldi berean, ukalezina da.

Habsburgoko etxea zen Espainian erreinatzen zuena. XVII. mende hasierako gorte europarrak suspertu eta egituratzen zituzten sare dinastikoen azterketa sakona egin gabe, Maria Medicikoari buruzko zenbait ohar

14 Lerro hauek Jean-François Dubostek, Belyn, 2003an, idatzitako «Italie et France» liburuaren sarreran oinarritzen dira. 679-681. or.

15 Ikus «Espagne et France» sarrera. Bartolomé Benassar, Bely, 2003, 503. or.

16 Oudin 1607.



12. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Enrike IV.a Frantziako erregearen erretratua, beltzez jantzita, c. 1610
Olioa oholean. 39 x 25 cm
Musée du Louvre, Paris
Inb. zenb. 1708



13. Frans Pourbus Gaztea (1569-1622)
Enrike IV.a Frantziako erregearen erretratua, c. 1610 edo geroago
Olioa oholean. 43 x 28 cm
Musée du Louvre, Paris
Inb. zenb. 1707

egitera ausartuko gara. Frantziako erregina Austriako Juana artxidukesaren (1547-1578) alaba zen; horregatik, hain justu, Habsburgotarren odola zuen eta Vienan erreinatzen zuen adar inperialekoa zen (Pragan Rodolfo II.ak erreinatzen zuen, eta 1612an zendu zen). Bere ahizpa Eleonora Mantuako dukearekin ezkondu zen, hau da, Vincenzo Gonzagarekin. Askotan, ez da kontuan hartu Espainiako Karlos I.a eta Alemaniako Varen biloba dela amaren partetik, hots, Austriako Eleonora (1534-1594). Labur-zurrean, esan dezakegu Maria Medicikoa Habsburgotarren leinukoa zela.

1606an, Maria Medicikoaren erretratua margotu zuen Frans Pourbus Gaztea Habsburgoko printzeen espiritua hobekien ezagutzen zuenetako bat zen. Zenbait urte lehenago (1603-1604), Austriara joan zen dinastia europarrarekin ezkon-hitza emanda zuten artxidukesak erretratatzeko; Mantuako dukerriko pintore ofiziala zen, eta gogoratu beharra dago feudo inperiala zela –Mantuako dukeak basailutza lotura hori leuntzeko, laxatzeko ahaleginak egin zituen, eta, Europako gorte sofistikatuenetako batean, norgehiagoka sinbolikoko harremana mantendu zuen gorte inperialarekin–; batez ere, Pourbusek hegoaldeko Herbeheretan hasi zuen bere ibilbidea, Bruselako Alberto eta Isabel Klara Eugenia artxidukeen zerbitzura eta horiei buruz utzitako irudiak Sánchez Coello tradizioaren eredu dira. Frans Pourbus Gaztea, bai bere prestakuntzagarriak bai bere komitente eta babesleengatik eta, bereziki, bere ibilbide profesionalagatik, Habsburgoko gortearen erretratuen tradizio handiaren XVII. mende hasierako gizakundea zen. Eta, 1606an, Maria Medicikoak artista honen berri izan zuen.

Hitz bakar batean, Pourbus Frantziara etorrarazteak Habsburgotarren gortearen artea Louvreko museoan eta Fontainebleauko jauregian sartzeari esan nahi zuen. Bilboko mihiseak mende aldaketako funtsezko postura diplomatiko eta artistiko hau zertzen du. Horren ondorioak hunkigarriak dira: gaur egun Bilboko Arte Eder Museoan ikusgai dugun *Maria Medicikoaren erretratuaren* aurrean, Louvreko Museoan dauden Enrike IV.aren irudi txikiak kokatu beharko lirateke. Ohol txiki eta baliotsu bi horiek Frans Pourbus Gaztearen eraikin frantsesaren lehenengo harriztat hartzen dira. 1618an, «François» Pourbus izatera pasa zen¹⁷. Are esanguratsua da pentsatzea lan hauek 1606an Frantziako gortearrekin izan zuen lehen harremanaren jarraipen beharrezkoa izan zirela. Parisen bizitzen hasi zenean, 1609. urte aldera, Pourbusek jaso zuen lehen eskaria erregeari erretratua egitea izan zen, hain zuzen ere, zenbait urte lehenago, erregina erretratatu zuen modu bertsuan. Eraitza Enrike IV.a, beltzez jantzita izan zen, baina baita Enrike IV.a, armadurarekin [12. eta 13. ir.] ere. Gisa horretan, kate logikoa errespetatu dela dirudi eta kronologia are xehekiago zehaztu dela. Azkenik, harriztekoa da Maria Medicikoak arte frantsesa eta Frantziako erreinuaren politika Habsburgoko gustu eta inflexioekin uztartzeko egindako saiakera irmoa.

Ondorioa

Gure aburuz, *Maria Medicikoaren erretratua* lanak, arrakasta ukalezina izan zuena Mantuako gortean sortutako gorabeherengatik, Pourbus Gaztea Frantziara heldu zenean du jatorria. Erreginak, benetako Medicia, gustua ederki ezagutzen zuen eta gustuaren mezenas zen, bai familiaren tradizioagatik bai inteligentzia politikoagatik, Pourbusek egin zion erretratua ikusi zuenean, flandestarraren zerbitzuak jasotzeko saiatu zen. Izan ere, erreginak berak bere aldamenean egotea nahi zuen, handitasun handiz egindako erretratuen ezaugarri oro bere artean sartzeko, halako moldez non erreginaren eredu handietsi baitzuen. Nola ulertu, bestela, Florentziako pintore bati ez eskatu izana? Halarik ere, badirudi begi-bistakoa dela Florentziako giro herrikoia ezin zela pintore baten eskarmentu kosmopolitarekin lehiatu; gogora dezagun, bada, Coudenberg-eman zituela lehen urratsak, Habsburgoko etxearen gobernariak Bruselan zuten jauregian. Vincenzo

17 Nouvelles Archives de l'Art Français... 1873 (232.-235. or.). Pourbusen ituna argitaratu zuen.

Gonzagak ondo baino hobeto zekien hori. Horrela, Pourbus Bruselatik ekartzeko tematu zen, baita Rubens ere, eta hainbat eragozpen jarri zituen bere erretratugileari alde egiten utzi behar izan zionean. Erreparo horiek 1607ko abuztuaren 28an Mantuako dukesari idatzitako gutun batean islatu ziren:

B.G.ri esatea ahantzi zait, Erreginak [Frantziakoa, Maria Medicikoa] arren eskatzen dizuela Francesco pintorea bidal diezaiozuela bi edo hiru hilabetez. B.G.ri promes egiten dio dagokion unean itzuliko duela, eta B.G.ri errege egiten dio nahi hau aintzat har dezala... LIONORA¹⁸.

Frans Pourbus Gaztea ez zen Frantziara joan 1609ko bukaerara arte. 1610eko errege-hilketak inork aurreikusi ezin zezakeen egoera batean jarri zuen. Ama erreginarean gortean pintore aktiboa zen (izan ere, ez dago gorte *bakarra*, *hainbat* gorte baizik, nahiz eta, ondo ez badago ere, «gortea» esaten den). Esan bezala, gorreak Luis XIII.aren irudia zabal zedila eskatu zion, gazte eta jaun eta jabe. Halaber, erregina baten irudia ere zabaldu nahi zen, erregearen heriotzak goraiatua, erbesteak tindatutako botere ilunarekin; hain zuzen ere, gairidutako «samina» kanporaturik eta erreinuari zerbitzatzeko beharra bere gain hartuz, monarka absolutua izango zenarena. Aise asma daitekeenez, koadro gutxik dute, egiazki, Bilboko museoko koadroak beste garapen artistiko eta historiko.

18 «Mi scordai di scrivere a V.A. che la Regina la prega a mandarli Francesco pittore per due o tre mesi, promettendo a V.A. di rimandarli al suo tempo; io supplico V.A. a compiacersi di darli questa satisfatione... Lionora». Luzio 1913, 278. or.

BIBLIOGRAFIA

Ballarin 1982

Andreina Ballarin [a cura di]. *Pinacoteca di Vicenza*. Vicenza : Palazzo Chiericati, 1982.

Baschet 1868

Armand Baschet. «François Porbus, peintre de portraits à la cour de Mantoue», *Gazette des Beaux-Arts*, 25. libk., 1868ko urria, 277-298. or., 1868ko azaroa, 438-456. or.

Bély 2003

Lucien Bély (zuz.). *Dictionnaire de l'Ancien régime : royaume de France, XVIe-XVIIIe siècle*. (2. ed.), Paris : Presses Universitaires de France, 2003 (1. ed., 1996).

Heinz/Schütz 1976

Günther Heinz ; Karl Schütz. *Porträtgalerie zur Geschichte Österreichs von 1400 bis 1800 : Katalog der Gemäldegalerie*. Wien : Kunsthistorisches Museum, 1976 (Führer durch das Kunsthistorische Museum, 22).

Laurvik 1917

Nilsen Laurvik (arg.). *Catalogue Mrs. Phoebe A. Hearst Loan collection*. San Francisco : The San Francisco Art Association, 1917.

Luzio 1913

Alessandro Luzio. *La Galleria dei Gonzaga venduta all'Inghilterra nel 1627-28 : documenti degli archivi di Mantova e Londra*. Milano : L. F. Cogliati, 1913.

Nouvelles Archives de l'Art Français... 1873

Nouvelles Archives de l'Art Français : recueil de documents inédits publiés par la Société de l'Histoire de l' Art Français. 1873. Paris : J. Baur, 1872-1875.

Oudin 1607

César Oudin. *Thresor des deux langues françoise et espagnolle*. Paris : Marc Orry, 1607.

Sitzmann 1909-1910

Fr. Édouard Sitzmann. *Dictionnaire de biographie des hommes célèbres de l'Alsace depuis les temps les plus reculés jusqu'à nos jours*. Rixheim : F. Sutter, 1909-1910.

Venturi 1934

Adolfo Venturi. *Storia dell'arte italiana*. Milano : U. Hoepli, 1901-1940, 11 ale 25 liburukitan (berrinpr., Millwood, New York: Kraus Reprint, 1983).